

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

2019ko uztailaren 10eko jakinarazpena, udal biztanle erroldan ofizioz baja ematen duen prozeduraren berri ematen duena

Ondoren adierazten den pertsonari, saiatu arren, ezin izan zaionez jakinarazi udal honek jakin duela Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren erregelamendua onesten duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 54. Artikuluan xedatutakoak ez dituela betetzen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan xedatutakoa betez, hau jakinarazten zaio:

NORTASUN AGIRIA	BAJA IZAN DENEKO HELBIDEA	KONTZEJUA
72750638M	Real kalea, 35	Estavillo

Udal honetako alkateak uztailaren 10eko 41/2019 Dekretuaren bidez hau ebatzi du:

“LEHENENGOA. Izapidetzeko onestea eta ofizioz espedientea irekitzea, Armiñongo Udalaren biztanle erroldan baja emateko ondoren zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

NORTASUN AGIRIA	BAJA IZAN DENEKO HELBIDEA	KONTZEJUA
72750638M	Real kalea, 35	Estavillo

BIGARRENA. Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren erregelamenduaren 72.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozeduraren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, hamabost egun ematea interesdunari udal bulegora etor dadin, 09:00etatik 14:00etara, espedientea aztertu, bajarekin ados dagoen ala ez esan eta egoitza non duen egiaztatzeko egoki jotzen dituen alegazioak, agiriak eta argibideak aurkezteko. Ohartarazten zaio, halaber, epe horretan erantzunik jasotzen ez bada, espedientearekin jarraituko dela, harik eta Armiñongo udal biztanle erroldan ofiziozko baja gauzatu arte.”

Horrako hori jakinarazten zaio jakinaren gainean egon eta dagozkion ondorioak izan ditzan. Jakinarazten zaio, halaber, hamabost eguneko epea duela, iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, entzuna izan dadin.

Bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan ezarritakoarekin, ebazpen honen aurka ez dago errekurtsorik jartzerik, izapidetze hutsa baino ez da eta. Izapide honen aurka dagoela alegatu ahal izango du, eta alegazio hori prozedurari bukaera ematen dion ebazpenean hartu ahal izango da aintzat.

Armiñon, 2019ko uztailaren 10a

Alkatea

JUAN MUÑOZ BARTOLOMÉ